

KRONIKA.NET



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIAK 25 URTE - BERTSO AFARIA

Ximon Etxeberria sagardogilea: «Nahi nuen bertsoak merezi duen lekua izatea Otsua-enean»

Bertso afaria antolatu dute Otsua-enea sagardotegian. Maiatzaren 31n izango da, ostiralez. Lekua hartzeko lehenbailehen deitu behar da.

2013/05/26 - Igandea

aspaldiko lagun zaharrak elkartuta, bertso afari ederra antolatu dute otsua-enea sagardotegian, 25garren urteurrena ospatzeko. bertsotan, xebastian lizaso, anjel mari peñagarikano, millan telleria eta andoni egaña ariko dira. trikiti eta panderorik ere ez da faltako, xapre eta furrielaren eskutik. kintokoak dira gehienak, halaxe azaldu dio kronikari ximon etxeberria otsua-eneako sagardogileak. «xebastianekin aspaldiko harremana daukat, anai bat bezala da eta berari komentatu nion zerbait antolatu nahi nuela 25 urte betetzen genituela-eta. berak hitz egin zuen gainerakoekin eta libre zeudela esan zioten».

txotx denboralditik kanpo

otsua-enean aurreko asteburuan bukatu zen txotx denboraldia eta bertso afari hau denboralditik kanpo egitea erabaki du etxeberriak, «bertsoak merezi duen lekua izateko. sagardoak eta otorduak izango du bere garrantzia, baina bertsoak ere bai», azaldu du. bertsolariak librean ariko dira. «hala izan behar du gainera. bertsoak etorriko dira bere momentuan; giroak markatuko du», dio etxeberriak.

sagardotegiko menua

bertso afaria maiatzaren 31n izango da eta lekua lehenbailehen hartu behar da: 943 55 68 94. menua, sagardotegiko menua izango da.

sagardo polita

otsua-enean denboraldia ondo joan dela dio etxeberriak, baina nabari dela jaitziera. sagardoarekin ere gustora dira. «sagardo polita daukagu. begiekin asko jaten da eta kolore eta txinparta ederra dauzka. eta ondoren, oso zapore ona».



Zabaldu!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali



**Liburua
erosteko,
klik hemen**



Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak

2013ko Martxoak 8 -
Udal Adierazpena

Parot doktrinari
buruzko mozioa

Saharako herriari
buruzko mozioa

Udal Baratzen araudi
orokorra

Gehigarria: Hemen
da Hernaniko
sagardo berria!

Saskien zozketa -
IRABAZLEAK

Gehigarria: Gabonak

GEHIGARRIA: GORA
EZKONBERRIAK!

GEHIGARRIA:
AUKERA UGARI
HERNANIN, ETXEA
JANZTEKO -
SAGASTIYA

GEHIGARRIA:
OPORRETARAKO
PREST AL DAUKAZU
IBILGAILUA?

GEHIGARRIA:
ERRUGBIA 1GO
MAILARA

GEHIGARRIA: ZAINDU
PAUSOZ PAUSO